

KOPURU GERO ETA HANDIAGOA, BAINA MUGATUA

Nazioarteko migratzaileak, 1970-2019

Urtea	Migratzaile kopurua	Munduko biztanleriaren %
1970	84.460.125	2,3
1975	90.368.010	2,2
1980	101.983.149	2,3
1985	113.206.691	2,3
1990	153.011.473	2,9
1995	161.316.895	2,8
2000	173.588.441	2,8
2005	191.615.574	2,9
2010	220.781.909	3,2
2015	248.861.296	3,4
2019	271.642.105	3,5




Nazioarteko migrazioei garrantzi handia ematen zaie, baina ez fluxuak handiak izateagatik, baizik eta **immigrazioarekiko arbuioagatik.**



Nazioarteko migrazioak gertatzeko ez da nahikoa herrialdeen artean errenta aldeak izatea, edo arrazoiak izatea, edo nahi izatea: migratzeko **ahalmena** ere izan **behar da.**

Iturria: NBEren Ekonomia eta Gizarte Gaien Departamentua



30 pertsonatik bat nazioarteko migratzailea da



100 pertsonatik batek halaberharrez lekualdatu behar izan du



10 pertsonatik bat barne-migratzailea da, bere estatuaren barnean lekualdatzen da **(740 milioi pertsona dira barne-migratzaileak)**



Azken urteotan, **nazioarteko migratzaileen munduko hazkundera batez beste 5,6 milioikoa izan da urtean,** baina barne-mugikortasuna hamar aldiz handiagoa da migrazioa baino



Urtero **60 milioi pertsona inguru lekualdatzen dira landa-inguruneetatik hirietara**



Ingurumen-arrazoiengatik eta, zehazki, bat-bateko fenomenoengatik, **lekualdatu** behar duten pertsonen kopurua asko aldatzen da urte batetik bestera, baina **azken hamarkadan, batez beste, 24 milioi inguru izan dira urtean.** Horietatik, 4 milioi kausa geofisikoen ondorioz lekualdatu dira (lurrikarak, tsunamiak edo sumendien erupzioak), eta beste 20 milioiak "klima- arazoitzat" jo ditzakegun kausen ondorioz




Munduko Bankuaren arabera, **2050ean 120 milioi lagun izan daitezke,** klima-arrazoiak direla medio, **herrialdearen barnean lekualdatu beharrean direnak**

Iturria: NBEren Ekonomia eta Gizarte Gaien Zuzendaritza, 2020. M. Pajares (2020) Refugiados climáticos (Errefuxiatu klimatikoak).artzelona: Rayo Verde.

MUGIKORTASUNAREN PARADOXA HANDIA

Joaquín Arango-ren iritziz, gure garaia **nahi gabeko mugiezintasunaren** aroa da, **harrera-herrialdeek** muga eta oztopo ugari jartzen baitituzte, **immigrazio-politiken bidez,** lehorrez, itsasoz eta airez mugitzeko.

Nahi gabeko mugiezintasun horrekin batera, bada **borondatezko mugikortasuna ere,** desiratua eta sustatua: **turismoa.**



Errekorra munduko turismoan



Inoiz baino bidaiari gehiago

Turismoaren Mundu Erakundeak (TME) aurreikusi zuenaren arabera, 2020an **nazioarteko turistak 1.400 milioi** izatera iritsiko ziren urtean (herrialde batetik bestera bidaiatzen duten turistak). Alabaina, jada **2018an** gainditu zen zifra hori.



Bilakaera ikusgarria

1950ean nazioarteko 25 milioi bidaiari izan ziren; 1990ean 435 izan ziren; 2012an 1.000 milioiko zifrara iritsi zen, eta 2018an 1.400 milioi izan ziren. **2030ean 1.800 milioi izango direla aurreikusten da,** baina egungo hazkunde-eritmoari eutsiz gero, lehenago gerta daiteke.



Turismoaren gorakada


TMEren ustez, hainbat arrazoi dago **munduan bidaiari gehiago egoteko:** gora bidean diren ekonomietan **klase ertaineko jende gehiago izatea, teknologia-aurrerapenak, negozio-eredu berriak, bidaiak merkeagoak, eta bisen arubidea sinplifikatzea.**

Iturria: Turismoaren Mundu Erakundeak (TME) (2019ko azaroan argitaratutako txostena, 2018ko datuetan oinarrituta)

MUNDUKO BIZTANLERIAREN MUGIKORTASUNA

Migrazio-mugimendu gehienak kontinente bereko herrialde mugakideen artean gertatzen dira, edo herrialde barnean.

Migratzaileen jatorrizko herrialdea eta finkatutako lekua



Iturria: World Population Prospects: The 2019 Revision, New York. <https://population.un.org/wpp/>